

2021eko Eguberrietako kanpaina

KARDUEN, KONTSERBA BEGETALEN eta NAFARROA JATORRI IZENEN ARDOAREN SALMENTA IGOKO DELA ESPERO DU EROSKI-K EGUBERRIETAN

- Nafarroako tokiko produktuen salmenta %14 igo da 2021ean
- Produktu freskoak dira oraindik erosketen oinarria, nahiz eta igo egin diren Nafarroan ekoitzitako Eguberrietako gozokiak eta Nafarroa jatorri izena duen ardoa
- Kontsumitzaileak gutxi planifikatzen ditu Eguberrietako erosketak, eta batez ere denda fisikoan erosten jarraitzen du
- EROSKI-k 2021eko Eguberrietako kanpaina abiarazi du, "Zurekin dena berri on", ardatzean jarritz Eguberrietako erosketak bideratzeko erraztasuna, dela sortaren bidez, dela erosketa kanalen bidez eta dela aurrezpen bidez

Iruñea, 2021eko abenduaren 16a .- [EROSKI](#)-k Eguberrietako kanpainan, Nafarroako produktuen salmentak igoko direla espero du; batez ere, kontserba begetalak (esaterako, zainzuriak, piperrak eta orburuak) eta produktu freskoak (kardua eta borraja). Era berean, kalitatezko produktuen igoera espero du; besteak beste, Nafarroa jatorri izena duten ardoak, Erronkari jatorri izena duten gaztak eta Idiazabal jatorri izena dutenak.

"Eskualdeko produktuen igoera argia sumatzen dugu Eguberrietako kanpaina berezian, nahiz eta salmenta kopuru onak ari den ematen pandemia abiatu zenetik eta 2021 osoan. Produktu freskoen igoera esponentzialarekin izan du ikustekoa, hori izaten baita Eguberrietako erosketen oinarria, baina lotua dago halaber tradizionalak diren tokiko kalitatezko produktuetan kontsumitzaileak jartzen duen konfiantzarekin; esaterako, kontserba begetalak eta Nafarroa jatorri izeneko ardoa. Kontsumitzaileak kalitatea bilatzen du, eta gehienbat tokiko produktuetan aurkitzen du", esan du Asun Bastidak, EROSKIren tokiko produktuetarako zuzendari komertzialak.

Nafarroako produktuen salmenta %14 igo da urte honetan, eta gehienbat igo dira Nafarroa jatorri izeneko ardoa (%32) eta kontserba begetalak (%22).

Freskoagoa eta ekologikoagoa

Oro har, Eguberrietan ere, produktu freskoak izaten dira erosketen oinarria (fruta, barazkiak eta arraina), nahiz eta, esperientzien kategoriakoak postuak irabazten ari diren garai horretan (esaterako, ardoa, itsaski izoztuak eta Eguberrietako gozokiak).

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa

Hala berean, azpimarratzekoa da elikadura era berrien hazkuntzari loturiko joerak eta bizi estiloak; adibidez, produktu ekologikoak (%7) eta fresko ontziratuen soluzioak (arraina, %28; axuria, %23; eta behikia %16).

Kontsumitzaileen erosteko ohiturei dagokienez, EROSKI joan den Eguberrietan kontsumitzaileei egindako inkesta bateko datuetatik ondorioztatzen denez, ikusten da oraindik nahiago dutela denda fisikoan erosi eta gutxi planifikatzen dutela. Hori da 10 kontsumitzailetik 6ren hautua. 4tik batek bakarrik esan zuen asko lehenagotik egiten zuela erosketa, nahiz eta erosketa gehiena abenduaren 15a baino lehen egin.

2021eko Eguberrietako kanpaina

"Zurekin dena berri on" leloarekin, EROSKI 2021eko Eguberrietarako, ardatzean jarri ditu erosketa errazten duten tresnak eta kanalak, ezjakintasun garai honetan. EROSKI azpimarra jarri du dendan bertan aurretiaz erosteko posibilitatean; aukera hori kontsumitzaileen %17k erabili zuten iaz; eta horren ondotik datoz gainerako kanalak (EROSKI Online, *Click&Drive*, *Click&Collect* eta armairutxoak).

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa